

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

445

4/2015 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako 2015. urterako finantza-laguntzaren programa garatzen duena.

Badirudi gaur egun krisi ekonomikoa pixkanaka-pixkanaka gainditzen hasi dela, eta egoera horrek bere horretan jarraituko duela hurrengo urtean, analista ekonomiko gehien-gehien aurreikuspenen arabera. Horrekin batera, zerbait hobetu da finantzaketa-iturriak eskuratzeko sarbidea, bai eta haien baldintzak ere, eragile ekonomiko guztientzat. Hala ere, hobekuntza hori, zeinaren adierazgarririk onena aurten estatu- eta autonomia-zorrari lotutako arrisku-primetan izandako murrizketa handia izan baita, ez da neurri berean aldatu enpresa txiki eta ertainek, banako enpresaburuek eta profesional autonomoek izan ditzaketen finantzaketa-baldintzetara, baina ez da gauza bera gertatu enpresa handien kasuan.

Horregatik, jakinda ere nabarmen hobetu dela finantzaketa-iturriak lortzeko aukera, eta, gainera, horrek, Europako Banku Zentralak gaian daukan inplikazio handiaren ondorioz, denboran jarraitzea espero dela, pentsatzen da ezen, krisi ekonomikoari lotutako ziurgabetasun-egoera dela eta, komeni dela indarrean mantentzea, hurrengo urtean behintzat, zirkulatzaila finantzatzen laguntzeko programa bat enpresa txiki eta ertainentzat, banako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat, 2009. urteaz geroztik gauzatu direnen ildo berekoa.

Kontuan hartuta zeinen garrantzitsuak diren eragile ekonomiko horiek enpresa-sarean, begi-bistako inplikazioak dituztela produkzio-jarduera osoan eta handizkako finantza-merkatuak edo kreditu-erakundeen lerroak baliatzeko ahalmen txikiagoa dutela, oraindik ere beharrezkotzat jotzen da kolektibo horien finantzaketa-beharrek arintzeko mekanismo bat prestatzea egungo egoerari erantzuteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek finantza-laguntza emateko programa hau bideratzeko eman beharreko laguntzak, aurreko urtean bezala, honako oinarri hau izango du: bere babesean hitzartzen diren finantzaketa-eragiketen birfinkatze partziala. Horretarako lege-oinarria 2014. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen abenduaren xx(e)ko xx/2014 Legearen 9. artikulua da. Finantza-laguntza emateko programa honetarako gehieneko zuzkidura 600 milioi eurokoa izango da (formalizatu beharreko mailegutari), eta enpresa txiki eta ertainen, banako enpresaburuen eta profesional autonomoen zirkulatzaila finantzatzeko beharrei eta likidezia-beharrei aurre egitea izango du xede.

Horretarako, dekretu honek programan sartzeko baldintzak arautzen ditu, hala nola enpresa eta pertsona onuradunak, bitartekoen erabilgarritasuna eta maileguetarako baldintzak. Era berean, barruan jasotzen du elkarrekiko berme-baltzuetan eta finantzaketa-eskabideetan laguntzen duten finantza-erakundeetan izapideak egiteko prozedura. Dekretuak, halaber, honako hauen artean lankidetzak-hitzarmenak izenpetzeko aukera jasotzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, finantza-erakundeak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, funtsak eman nahi badituzte programa finantzatzeko, banku-gordailu egokiak eratuz beren inbertsioak gauzatzeko.

Azkenik, Finantzen Euskal Institutuak, esleituta dauzkan eginkizunak baliatuta, maileguak emateko aukera ere aurreikusten da.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko urtarrilaren 20an egindako bilkuran proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantzaketa-lerroa eratzea, hura eskuratzeko baldintzak eta prozedura arautuz. Lerro horren helburua izango da banku-finantzaketa lortzeko aukera ematea, zirkulatzaille-beharrei erantzuteko eta likidezia-beharrak estaltzeko, aipatu eragile ekonomikoez ari garela.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmenak izapidetzen dituzten elkarrekiko berme-baltzuen eta finantza-erakunde laguntzaileen bidez, finantza-lerroa eratuko du enpresa txiki eta ertainen, banako enpresaburu eta profesional autonomoen alde.

2. artikulua.– Enpresa eta pertsona onuradunak.

1.– Dekretu honetan jasotako bermeak eta finantzaketa-lerroak honako hauek eskuratu ahal izango dituzte:

a) Egoitza edo kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa txiki eta ertainek (ETE); hau da, hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenek:

- Jarduera ekonomikoren bat egitea.
- 250 langile baino gutxiago izatea.
- Urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- Zuzenean edo zeharka, haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea aurretik adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duen enpresa batek edo batzuek batera.

Aurretiaz adierazitakoaren beste edozein interpretazio egiteko, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioan (EEAO, L124, 2003ko maiatzaren 20koa) enpresa txiki eta ertainen definizioari buruz ezarritakoa edo gomendio hori ordeztu edo aldatzeko xedapenak hartuko dira kontuan.

b) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten banakako enpresaburu eta profesional autonomoek; hau da, hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenek:

- Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide berezian alta emanda egotea.
- Pertsona Fisikoen Errentaren Zergari lotutako jarduera ekonomikoen edo profesionalen bidez etekinak lortzea.

2.– Enpresa eta pertsona onuradunek Euskal Autonomia Elkarteko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 39. artikuluko 2. eta 4. paragrafoetan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Baldintza horien artean, azaroaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 artikuluari lotutakoa dago, haren arabera ezingo dituztelako baliatu dekretu honetan jasotako bermeak eta finantza-keta-lerroa sexua dela eta diskriminatzeagatik zigor administratiboa edo penala duten pertsona fisikoek edo juridikoek, kasuan kasuko zigorraren arabera zehaztutako aldian.

Jarduera ekonomikoko sektore guztiek jaso ahal izango dute finantzaketa. Hala ere, 15. artikularen 1. atalean xedatutakoa baztertu gabe, onuradun gisa salbuetsita geratzen dira erakunde eta sozietate publikoak, jarduera ekonomikorik ez duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, finantza-erakundeak (IAE epigrafeak: 81, 82, 831, eta 832) eta higiezin-jarduerak (IAE epigrafeak: 833, 834 eta 861.1).

3.– Finantzaketa eskuratu ahal izateko, enpresa ezin da egon krisi-egoeran, Europako Batzordearen 2004/C 244/02 Komunikazioan ezarritakoa betez (EEAO, 2004ko urriaren 1ekoa); horrez gain, enpresak egunean izan behar ditu foru-aldundiekiko eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak.

3. artikulua.– Finantzatzeko moduko egoerak.

1.– Finantza-eragiketek, finantzatzeko modukoak izateko, xede hau izan behar dute: kapital zirkulatzailearen finantzaketa eta likidezia-beharrak estaltzea.

2.– Finantzaketa-beharrak aztertu ondoren, elkarrekiko berme-baltzuak, dekretu honetako III. kapituluan ezarritako prozedurari jarraituz, bermearen helburu den finantza-eragiketaren zenbatekoa eta epea zehaztuko ditu.

II. KAPITULUA

FINANTZAKETA-ERAGIKETAK

4. artikulua.– Hitzarmenak elkarrekiko berme-baltzuekin, finantza-erakundeekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin.

1.– Dekretu honetan ezarritakoaren arabera gauzatzen diren finantzaketa-eragiketa guztiek elkarrekiko berme-baltzuren batek abalatuta egon beharko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta eragiketan parte hartuko duten elkarrekiko berme-baltzuek hitzarmena sinatuko dute, eta, haren bitartez, kontraberme-sistema bat egokituko zaie baltzu horiek abalaturako finantza-eragiketei.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta finantza-erakunde laguntzaileek lankidetzahitzarmenak sinatuko dituzte, enpresa eta pertsona onuradunen aldeko finantza-keta-eragiketak formalizatzeko.

3.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, aurreko ataleko finantza-erakunde laguntzaileek eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde interesatuek lankidetzahitzarmenak sinatu ahal izango dituzte, bideak prestatzeko bigarrenengoek aurreneko finantzaketa helaraz diezaieten, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen inbertsioak gauzatzeko egokiak diren banku-gordailuak eratzearen bidez.

5. artikulua.– Abal-eragiketen ezaugarriak.

1.– Elkarrekiko berme-baltzuek emandako finantza-abalek enpresa eta pertsona onuradunen diruzko arriskuak bermatuko dituzte, zuzenean edo zeharka, finantza-erakunde laguntzaileen aurrean, dekretu honetako lehenengo artikuluan zehaztutako beharrianak estaltzeko erabili diren finantzaketa-eragiketetatik eratorri badira.

Programa honen bidez abal bat emateko, eragiketa onartzen duen elkarrekiko berme-baltzua-
ren kide izan behar du onuradunak.

2.– Honakoak izango dira abalen kostua eta baldintzak:

– Azterketa-komisioa: maileguaren printzipalaren % 0,10; behin bakarrik, abala eskatzean.

– Formalizazio-komisioa: formalizatutako abalaren % 0,20; behin bakarrik.

– Abal-komisioa: % 0,75 urteko. Aurretiaz aplikatuko da, urtarrilaren 1ean, abalatutako maile-
guak urte bakoitzean egun horretan duen saldoa oinarri hartuta. Formalizatu den urtean eta behin
betiko iraungiko den urtean, urtea amaitu arte edo iraungi arte benetan igaro den egun kopuruaren
araberako proportzioan aplikatuko da, batez besteko saldoaren arabera.

– Elkarrekiko berme-baltzuak ez du inolako komisio edo gastu gehigarri aplikatuko.

6. artikulua.– Finantzaketa-eragiketen ezaugarriak.

1.– Finantzaketa-eragiketek ezaugarri hauek izango dituzte:

Baliabidea: mailegu amortizagarria.

Gehieneko interes-tasak: Euriborra sei hilabetera, gehi gehieneko diferentziala, maileguaren
epearen arabera.

Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertu behar da Reuter-en Euribor= pantailaren bidez (oina-
rria: Act/360) edo, aurrekoa desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila
baten bidez lortutako bankuen arteko interes-tasa. Tasa hori sei hilabeterako gordailuetarako da,
eta eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko bigarren egun baliodunearan kalkulatu
da. Ez da biribiltzerik onartuko.

Dena den, finantza-erakundeak Convenio Linea ICO Garantía SGR/SAECA 2014tik eratorritako
funtsak erabiltzen baditu, finantza-erakundeek finantzaketa tasa finkoari edo aldakorrari aplikatu
beharreko gehieneko marjina, ICOk hamabostaldi eskaintzen duena, % 0,75 izango da, eta hura
mailegua ordaintzeko funtsak erabiltzen diren egunean argitaratuko du erakunde horrek.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin sinatutako hitzarmenetako funtsak erabiliz
gero, enpresa onuradunari aplikatu beharreko interes-tasa borondatezko gizarte-aurreikuspeneko
erakundeekin sinatutako aipatu hitzarmenetan jasotakoaren arabera eraturako gordailuen ordain-
sariaren interes finkoa edo aldakorra % 0,75 handituta kalkulatu da.

Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak maileguen interes-tasak
berrikusi ahalko ditu hiruhileko natural bakoitzaren amaieran, merkatuko tasa parekagarrien bila-
kaera kontuan hartuta. Interes-tasak eguneratzen badira, finantza-erakunde laguntzaile guztiei
jakinaraziko zaie, Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako zuzendariaren ebazpen
bidez. Tasa berriak finantza-erakundeei jakinarazi ondoren ematen diren maileguei baino ez zaiz-
kie aplikatuko.

Mailegu-eragiketen epea eta Euribor aplikagarriaren gaineko diferentziala:

Epea (urtetean)	Diferentziala (gehienekoa)
3	% 2,00
5	% 2,25
7	% 2,50

Maileguetan printzipala amortizatzeko aukerako urtebeteko gabealdia kontuan hartu ahal izango da. Hiru hilean behin egingo da interesen eta amortizazio-kuoten likidazioa. Mailegua tasa aldakorrarekin formalizatuz gero, interes-tasa sei hilean behin berrikusiko da.

Maileguez ez dute inolako komisio edo gastu gehigarri izango. Mailegu-hartzaileak aurretiaz ezeztatu edo amortizatu ahal izango du mailegua, inolako kosturik gabe.

2.– Honako hauen artekoa izango da maileguen zenbatekoa:

a) 50.000 euro eta 650.000 euro artean, enpresa txiki eta ertainentzat.

b) 5.000 euro eta 100.000 euro artean, banako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

c) 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 Erregelamenduan (EBEO, L 352/9, 2013-12-24koa) aipatutako nekazaritzako produktuak ekoizten dituzten banako enpresaburu eta profesional autonomoentzat, aipatu erregelamenduko 4.6 artikuluan jasotako muga aplikatuko da.

2014ko ekainaren 27ko Batzordearen 717/2014 Erregelamenduan (EBEO, L 190/45, 2014-06-28koa) aipatutako arrantza-sektorean diharduten eskatzaileentzat, aipatu erregelamenduko 4.6 artikuluan jasotako muga aplikatuko da.

d) Dekretu honen bidez emandako maileguak aurreko ekitaldietan finantza-laguntzako dekretuen eta hitzarmenen bitartez xede bererako emandakoekin bilduko dira, halako eran non batzuen eta besteen batuketak ez duen gairatutako 750.000 euroko baterako muga enpresa txiki edo ertain bakoitzarentzat, eta 120.000 eurokoa banako enpresaburu edo profesional autonomo bakoitzarentzat, betiere maileguen onuradun diren enpresek edo pertsonak egunean badute aurreko ekitaldietako programen bitartez lortutako maileguen amortizazio-kuoten eta interesen ordainketa.

3.– Enpresa edo pertsona onuradunak emandako maileguaren zenbateko osoa izango du erabilgarri. Finantza-erakundeak ezin izango ditu saldoak atxiki edo pignoratu, ezta emandako maileguaren onuradunak eskura dezakeen zenbatekoa murrizteko antzeko figurarik aplikatu ere.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

7. artikulua.– Deialdia.

1.– Dekretu honek araututako finantzaketa-lineak eskuratzeko deialdia egingo da; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da hori, eta publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioei jarraitu beharko zaie.

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren aginduaren bitartez egingo da deialdia, eta erabilgarri dauden baliabideen guztizko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko epe eta lekua eta

gainerako prozedura-alderdiak zehaztu beharko dira bertan. Era berean, deialdian laguntzaile diren finantza-erakundeen eta elkarrekiko berme-baltzuen zerrenda ere zehaztuko da.

2.– Deialdian, edo deialdi guztien artean, gutxienez 30 milioi euroko zenbatekoa bermatuko da, eta eskari nahikoa egonez gero, 90 milioi eurora handitu ahal izango da zenbateko hori, dekretu honetako I. kapituluan zehaztutako banako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

Hala ere, Ogasun eta Finantza Sailak zenbatekoak berresleitu ahal izango ditu, dekretu honetan azaltzen diren kolektiboetakoren batean finantzazio-eskaria nahikoa izan ez den kasuetan.

8. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Enpresa txiki eta ertain eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea, eranskineko F1P formularioan jasotako ereduaren arabera.

b) Pertsona eskatzailearen ordezkartza-ahalordearen fotokopia.

c) Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla dioen aitorten arduratsua (eranskineko F2P formularioa). Ikuskaritza-bisitan egiaztatu ahal izango dira eta honako hauek dira, hain zuzen ere:

– 2014ko abenduaren 31n langile-taldean zegoen langile-kopurua, hilabete horretako TC1aren arabera.

– Fakturazio-kopurua 2014ko abenduaren 31n.

– Urteko balantze orokorraren kopurua 2014ko abenduaren 31n.

– ETE ez den ezein enpresak edo enpresa batzuek elkarrekin enpresaren kapitalean zuzenean edo zeharka % 25etik gorako partaidetzarik ez izatea.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztelako frogagiria.

e) Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.

f) Azken hiru ekitaldietako (2012-2014) urteko kontuak.

g) Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen deskribapen-memoria. Enpresak egin behar du (eranskineko F3 formularioa).

2.– Banako enpresaburuek eta profesional autonomoek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea, eranskineko F1A formularioan jasotako ereduaren arabera.

b) Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla dioen aitorten arduratsua (eranskineko F2A formularioa).

c) Foru Aldundiaren ziurtagiria, profesionalak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztelako frogagiria.

e) Eskatzailearen ondasunen aitortpena.

f) 2014. urteko diru-sarrera eta gastuen egikaritzea, eta urte honetarako aurreikuspena.

g) Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen deskribapen-memoria.

3.– Eskatzaileak gorago aipatutako aitorpenean jasotako daturen bat faltsutzen badu, indarrean dagoen zigor-araubidea ezarriko zaio, bai administratiboa eta bai penala.

4.– Edonola ere, Ogasun eta Finantza Sailak eta elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileek aurkeztu den eskabidea ulertu, ebaluatu eta tramitzatzeko beharrezkotzat jotzen duten informazio osagarria galdegin ahal izango diote enpresa eskatzaileari.

9. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Lankidetzeta-hitzarmenaren arabera laguntzaileak diren elkarrekiko berme-baltzuen bulegoetan aurkeztu beharko dira eskabideak eta aurreko artikuluan aipatutako gainerako agiri guztiak.

Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute eskaria eta beharrezko informazioa aurkezterakoan, eta hizkuntza horixe erabiliko da eskaritik eratorritako jardueretan eta prozedura osoan zehar, indarrean dagoen hizkuntza araudiarekin bat.

2.– Interesdunek www.euskadi.eus atarian edo Zuzenean arreta-zerbitzuaren bitartez (012 telefono-zenbakia) eskuratu ahal izango dute informazio gehiago, bai eta eskaera-orriak ere.

10. artikulua.– Eskabideak aztertzea eta abala baimentzeko agiria formalizatzea.

1.– Programan laguntzaile diren elkarrekiko berme-baltzuen ardura izango da aurkeztu diren eskabideak aztertu eta ebaluatzea, abala eman aurretik.

2.– Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo 8. artikuluan zerrendatutako agiri guztiak ez badira aurkeztu, elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak agindeia egingo dio enpresa edo pertsona eskatzaile interesdunari, huts hori zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan 10 eguneko epean; era berean, agindutakoa bete ezean eskaera bertan behera utzi duela ondorioztatuko dela ohartaraziko zaio.

3.– Elkarrekiko berme-baltzuak autonomia izango du jaso dituen abal-eskabideak onartu edo ukatzeko, bai eta kontraberme erreal edo pertsonalak eskatzeko ere; horretarako, abal-jardueran eskuarki erabiltzen dituen azterketa- eta erabaki-irizpideak aplikatuko ditu.

4.– Elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak, eskabidea aztertu ostean, «abala baimentzeko agiria» emango du, hala badagokio, eta F4 formularioan azaldutako informazioa zehaztuko da bertan.

5.– Elkarrekiko berme-baltzuak aldi berean emango die «abala baimentzeko agiriaren» berri enpresa edo pertsona onuradunari, finantza-erakunde laguntzaileari eta Ogasun eta Finantza Sailari.

6.– Elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak gauzatutako zein ukatutako abal-eragiketak jakinaraziko dizkio Ogasun eta Finantza Sailari, horretarako egin den lankidetzeta-hitzarmenean ezarritako aldizkakotasun, betekizun eta erduei jarraituz.

11. artikulua.– Mailegu-eragiketak formalizatzea.

1.– Elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileak bermatzen den mailegu-eragiketarako «abala baimentzeko agiria» onetsi eta finantza-erakunde egokiari bidali ostean, enpresa edo pertsona eskatzaileak lankidetzeta-hitzarmena sinatu duen finantza-erakunderen batekin formalizatuko du eragiketa hori.

2.– Finantza-erakundeek formalizatutako mailegu-eragiketak jakinaraziko dizkiote Ogasun eta Finantza Sailari, lankidetzeta-hitzarmenean ezarritako aldizkakotasun, betekizun eta ereduei jarraituz.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren birfinkatzea bertan behera geratuko da «abala baimentzeko agiria» ematen den egunetik gehienez hiru hileko epean formalizatzen ez diren eragiketetan.

12. artikulua.– Finantzaketa-lerroa agortzea.

1.– Dekretu honetako diru-laguntzak emateari utziko zaio haren bidez banatutako finantza-keta-eragiketak 600 milioi eurora iristen direnean.

2.– Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordearen ebazpen bidez jakinaraziko du aurreko hori Ogasun eta Finantza Sailak, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

13. artikulua.– Enpresa eta pertsona onuradunen erreklamazioak.

Finantza-laguntza emateko programa honetako erakunde eta pertsona eskatzaileek egindako erreklamazioak jasoko ditu Ogasun eta Finantza Sailak, eta haiek kasuan kasuko elkarrekiko berme-baltzuari edo finantza-erakundeari entzun ostean bideratuko dira. Aurkeztutako erreklamazioa Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordearen ebazpen bidez ebatziko da.

14. artikulua.– Egiatztatzea eta gainbegiratzea.

1.– Finantza-laguntzako programa honetako enpresa eta pertsona onuradunek eta erakunde laguntzaileek Ogasun eta Finantza Sailaren egiaztapen-, ikerketa- eta azterketa-jarduerak onartu beharko dituzte.

2.– Jarduera horien ondorioz egiaztatuko balitz pertsona edo enpresa onuradunen batek baldintzaren bat bete ez duela, dagokien elkarrekiko berme-baltzuari eta finantza-erakundeari jakinaraziko litzaieke hori, emandako finantzaketa ezezta dezaten. Hori dela eta, pertsona edo enpresa onuradunak uko egin beharko dio eragiketari, aurretiaz amortizatuz. Bestalde, egiaztatuko balitz erakunde laguntzaileetakoren batek bere egindako betebeharren bat bete ez duela, harekin sinatutako hitzarmena azkendu egingo litzateke, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak beste lege- eta administrazio-jarduera batzuk abiaraztea.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egindako birfinkatze-betebeharren ondorioz egindako pagamenduen ordaina jaso behar badu, erakunde onuradun bati egozteko moduko ez-betetzeen ondorioz, Ogasun eta Finantzetako sailburuak, prozedura egokia bideratu eta erakunde onuradunari entzun ondoren, enpresa horren zorraren zenbatekoa eta hura ordaintzeko modu eta epea zehaztuko ditu.

15. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Eragiketek estatuko «minimis» laguntzak erregulatzeko arauak ezarritakoa beteko dute; honako hauetan bildutakoa, hain zuzen ere: 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBEO, L 352/1, 2013-12-24); 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektorean «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBEO, L 352/9, 2013-12-24); eta 2014ko ekainaren 27ko Batzordearen 717/2014 Erregelamendua, Itunaren 87. eta 88. artikulua arrantza-sektorean «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBEO, L 190/45, 2014-06-28).

2015eko urtarrilaren 30a, ostirala

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein herri-administrazio, sail, erakunde publiko zein pribatuk emandako laguntzekin, betiere laguntzak metatuta ez bada eskuratzen kategorien arabera salbuespenen erregelamenduan edo Batzordeak hartutako erabakiren batean inguruabar zehatzetarako ezarritako zenbatekoa baino gehiago.

2.– Arau honen bidez onuradun diren pertsona edo enpresek beti jakinarazi beharko diote Ogasun eta Finantza Sailari beste diru-laguntza edo laguntzaren bat jaso duten helburu bererako; halaber, zerga-ekitaldi honetan zein aurreko bi ekitaldietatik aurrera gaur egun arte jaso dituzten «minimis» laguntzak ere jakinarazi beharko dizkiote.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Finantzen Euskal Institutuak, egokitu zaizkion eginkizunak baliatuta, dekretu honetako lehen artikuluan zehaztutako finantzaketa-beharrak estaltzeko maileguak eman ahalko ditu.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ogasun eta Finantzetako sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 20an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.

4/2015 DEKRETUA, URTARRILAREN 20KOA ERANSKINA

F1P ESKABIDE-ORRIA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

Kargua:.....

Honako enpresa honen legezko ordezkaria: IFZ:.....

Enpresaren jarduera:

Helbidea:

Tel.:.....Faxa:.....Helbide elektronikoa:.....

Honen bitartez, «Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako 2015 urterako finantza-laguntzaren programari» heltzeko eskatu nahi dut.

Eguna eta sinadura:

Erantsitako dokumentazioa:

- Eskatzailearen ordezkari izateko ahalordearen fotokopia.
- Enpresaren datuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zerga azaltzen duena.
- Azken ekitaldietako urteko kontuak.
- Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen memoria.

– *Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Datu horiek programan lagunduko duten finantza-erakundeen eta elkarren bermerako sozietateei laga ahal izango zaizkie, finantzaketa-programa hau kudeatzeko. Eskatzaileak, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzake, legean ezartzen denez. Horretarako, Ogasun eta Finantza Sailera jo beharko du: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

2015eko urtarrilaren 30a, ostirala

F2P ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

Kargua:.....

Honako enpresa honen legezko ordezkaria: IFZ:.....

ADIERAZTEN DU:

- 1.– Bizitokia Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
- 2.– Bete egiten dituela Europako Batzordeak ezarritako ETE baldintzak.
- 3.– Indarreko legediaren arabera, zerga-betebeharrei dagokienez, foru aldundiekin egoera erregularizatuta duela, bai eta Eusko Jaurlaritzarekin edo haren edozein sozietate edo erakunderekin ere.
- 4.– Egoera erregularizatuta duela Gizarte Segurantzarekin.
- 5.– Eskaera hau aurkeztu duenean, ez duela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita sexuaren araberako bereizkeria egiteagatik.
- 6.– Honako hauek direla enpresa eskatzailearen datuak, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 6/5/2003 Gomendioan adierazitakoaren arabera:

	Langile kopurua	Negozio-bolumena (€)	Urteko balantze orokorra (€)
Itxitako azken ekitaldia			
Itxitako azken-aurreko ekitaldia			

Data eta sinadura:

F3 PASIBO GALDAGARRIA FINANTZATZEKO BEHARRIZANEN DESKRIBAPEN-MEMORIA

1) Urtarrilaren 20ko 4/2015 Dekretuaren 3. artikulua aipatutako pasibo arruntaren kontuek enpresaren balantzean duten egoera:

(Zenbatekoa eurotan)

IZENA	2013	2014
Hornitzaileak		
Hornitzaileentzako aurrerakinak		
Epe motzeko zorrak		
Epe motzeko errentamendu finantzariogatik hartzekodunak		
Epe laburrean ordaindu beharreko efektuak		
Zorren epe laburrerako interesak.		
Epe laburreko bestelako pasiboak		
GUZTIRA		

2) Pasibo arruntaren finantzazio beharren eta lortutako baliabideen aplikazioaren deskribapen laburra.

3) Finantza-egoera, finantzazio-eskaeraren ondoren.

EPE LUZEKO PASIBOA Finantza-erakundearen identifikazioa	Hasierako zorra	Zorren hasiera- data	Zorra 2014.12.31ean	Amortizazioa 2015	Amortizazioa 2016	Amortizazioa 2017	Amortizazioa 2018	Gainerakoa

EPE LABURREKO PASIBOA Finantza-erakundearen identifikazioa	Hasierako zorra

Amortizazioa 2015

F1A ESKABIDE-ORRIA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

Kargua:.....

Honako enpresa honen legezko ordezkaria: IFZ:.....

Enpresaren jarduera:

Helbidea:

Tel.:.....Faxa:.....Helbide elektronikoa:.....

Honen bitartez, "Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2015 urterako programari" heltzeko eskatu nahi dut.

Data eta sinadura:

Erantsitako dokumentazioa:

- Enpresaren datuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiria.
- Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zerga azaltzen duena.
- 2014ko diru-sarrera eta gastuen eta 2015erako aurreikuspenen egikaritzeari buruzko dokumentazioa.
- Eskatzailearen ondasunen aitortpena.
- Pasibo galdagarria finantzatzeko beharizanen memoria.

– *Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Datu horiek programan lagunduko duten finantza-erakundeen eta elkarren bermerako sozietateei laga ahal izango zaizkie, finantzaketa-programa hau kudeatzeko. Eskatzaileak, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzake, legean ezartzen denez. Horretarako, Ogasun eta Finantza Sailera jo beharko du: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

2015eko urtarrilaren 30a, ostirala

F2A ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Espediente-zenbakia:Sozietatearen izena:.....

Izen-abizenak:..... NAN zk.:.....

ADIERAZTEN DU:

- 1.– Bizitokia Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
- 2.– Alta emanda duela norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide berezian.
- 3.– Etekinak lortzen dituela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako jarduera ekonomikoen edo profesionalen bidez.
- 4.– Indarreko legediaren arabera, zerga-betebeharrei dagokienez, foru aldundiekin egoera erregularizatuta duela, bai eta Eusko Jaurlaritzarekin edo haren edozein sozietate edo erakunderekin ere.
- 5.– Egoera erregularizatuta duela Gizarte Segurantzarekin.
- 6.– Eskaera hau aurkeztu duenean, ez duela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita sexuaren araberako bereizkeria egiteagatik.

Data eta sinadura:

F4 ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

1) ERAKUNDE ABAL-EMAILEA:

2) ENPRESA ONURADUNAREN / AUTONOMOAREN / BANAKAKO ENPRESABURUAREN DATUAK

Sozietatearen izena / Izena	
Sozietatearen egoitza	
IFZ/IFK	
EJSN	
Jardueraren deskribapena	

3) ABALATUTAKO FINANTZA-ERAGIKETA

Eragiketa-mota	
Baimenaren zk.	
Eragiketaren zenbatekoa	
Baimenaren data	
Interes-tasa	Euribor + (%) (%); xx,xx% (tasa finkorik gabe)
Funtsak	KOI Bai/Ez BGAE Bai/Ez
Mugaeguna	
Printzipalaren gabealdia	Bai/Ez
Finantza-erakundea	

4) BESTELAKOAK

Bestelako ohar batzuk	
-----------------------	--

Honen bitartez ziurtatu nahi dut (erakundea) EBSeK baimena eman duela (2. epigrafean deskribatutako enpresari/pertsonari) abala eman eta gauzatzeko, eranskin honetan azaldutako baldintzei jarraituz. Hori guztia, Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa garatzen duen urtarrilaren 20ko 4/2015 Dekretuan araututako baldintzen arabera.

..... (e)n, 2015ekoren a

(ERAKUNDE ABAL-EMAILEA) EBS

Izpta.: